

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**MOTIBAZIOA HAUR HEZKUNTZAN ADIMEN
ANITZEN TEORIAREN ETA PROIEKTUETAN
OINARRITUTAKO IKASKUNTZAREN BIDEZ
GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Suso Pérez de Eulate, Maite.

ZUZENDARIA: Ros Martínez de Lahidalga, Iker.

2021

Laburpena

Lan hau haur-hezkuntzako ikasleen motibazioa hobetzen lagun dezakeen esku-hartze proposamen bat diseinatzeko helburuarekin egin da, proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren eta adimen anitzen teorian bidez. Motibazioa haurrak bere ikaskuntzarekiko edo berak ikaskuntza horretara iristeko egiten dituen jardueretikiko duen interesa da. POIk lehen planoan jartzen du ikaslea, bere ikaskuntzaren protagonista bihurtuz. Adimen anitzen teoria, bestalde, ikaslearengan eta bere trebetasunetan oinarritutako irakaskuntza da. Bi kasuetan, irakaslea bigarren planoan geratzen da, eta gidari eta orientatzaile huts bihurtzen da. Lanaren lehen zatia berrikuspen bibliografiko bat da, eta haren helburua proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren, adimenen teoria eta ikasleen motibazioaren alderdi garrantzitsuenak ezagutzea izan da, baita hiru aldagai horien arteko erlazioa ere. Bigarren atalean, berrikuspen bibliografikoan jasotakoa kontuan hartuta, esku-hartze bat diseinatu da, 5 urteko gela batean egiteko pentsatuta. Proposatutako metodologia aktiboa eta parte-hartzailea da, eta ikaslea da ikaskuntza-prozesuaren protagonista. Maila teoriko-kontzeptualean, ondoriozta daiteke proiektu bat adimen anitzen teoriaren bidez egiteak, alde batetik, ikasle bakoitzaren adimenera eta bestetik ikasleen interesetara egokitzeko aukera ematen duela, eta horrek eragina izan dezakeela ikasteko motibazioan.

Hitz gakoak: POI, adimen anitzak, motibazioa, haur hezkuntza, esku-hartzea.

Resumen

Este trabajo se ha realizado con el objetivo de diseñar una propuesta de intervención que pueda contribuir a mejorar la motivación del alumnado de educación infantil a través del aprendizaje basado en proyectos y la teoría inteligencias múltiples. La motivación es el interés que tiene el niño por su aprendizaje o por las actividades que él mismo realiza para llegar a ese aprendizaje. El ABP pone al alumno en un primer plano, convirtiéndole en el protagonista de su propio aprendizaje. La teoría de las inteligencias múltiples es una enseñanza basada en el alumno y sus habilidades. En ambos casos el docente queda en segundo plano, pasando a ser un mero guía y orientador. La primera parte del trabajo consta de una revisión bibliográfica cuya finalidad ha sido conocer los aspectos más relevantes del aprendizaje basado en proyectos, la teoría de las inteligencias y la motivación del alumnado, así como la relación entre estas tres variables. En el segundo apartado, teniendo en cuenta lo recogido en la revisión bibliográfica se ha diseñado una intervención, pensada para llevarse a cabo en un aula de 5 años. La metodología propuesta es activa y participativa, siendo el alumno el protagonista de su proceso de aprendizaje. A nivel teórico-conceptual, se puede concluir que realizar un proyecto a través de la teoría de las inteligencias múltiples, por un lado posibilita adaptarse a la inteligencia de cada alumno y por otro parte de los intereses de los alumnos, lo que puede repercutir en su motivación a la hora de aprender.

Palabras clave: ABP, inteligencias múltiples, motivación, educación infantil, intervención.

Abstract

This work has been done with the aim of designing an intervention proposal that can contribute to improve the motivation of early childhood education students through project-based learning and the theory of multiple intelligences. Motivation is the child's interest in his learning or in the activities he undertakes to reach that learning. The PBL puts the student in the foreground, making him the protagonist of his own learning. For its part, the theory of multiple intelligences is a teaching based on the student and his abilities. In both cases the teacher remains in the background, becoming a mere guide. The first part of the work consists of a bibliographic review which purpose has been to know the most relevant aspects of project-based learning, the theory of multiple intelligences and student motivation, as well as the relationship between these three variables. In the second section, taking into account what is included in the bibliographic review, an intervention has been designed, intended to be carried out in a 5-year-old classroom. The proposed methodology is active and participatory, with the student being the protagonist of his learning process. At the theoretical-conceptual level, it can be concluded that carrying out a project through the theory of multiple intelligences, on the one hand makes it possible to adapt to the intelligence of each student and on the other hand the interests of the students, which may have an impact on their motivation to learn.

Keywords: PBL, multiple intelligences, motivation, pre-school, intervention.

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| 1. Sarrera..... | 1 |
| 1.1. Gaiaren Justifikazioa..... | 2 |
| 1.2. Arazoaren Planteamendua..... | 3 |
| 1.3. Helburuak..... | 4 |
| 2. Marko teorikoa..... | 5 |
| 2.1. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza..... | 5 |
| 2.1.1. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren Jatorria..... | 5 |
| 2.1.2 Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren Ezaugarriak..... | 6 |
| 2.1.3 Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren Onurak..... | 7 |
| 2.1.4 Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza Haur Hezkuntzako Etapan..... | 8 |
| 2.2. Adimen anitzen teoria..... | 9 |
| 2.2.1 Adimen Anitzen Ezaugarriak..... | 11 |
| 2.2.2 Adimen Anitzak Haur Hezkuntzako Gelan | 12 |
| 2.3. Motibazioa..... | 14 |
| 2.4.1 Motibazioa, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren Elementu Gisa..... | 15 |
| 2.4.2 Adimen Anitzak: Ikasleen Motibazioaren Motorra..... | 15 |
| 2.4.3. Adminen Anitzak Proiektuak Gauzatzeko Osagai Gisa..... | 15 |
| 2.4.4. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza, Adimen Anitzen Teoria eta Motibazioa..... | 16 |
| 3. Esku-Hartzearen Proposamena..... | 17 |
| 3.1. Proposamenaren Justifikazioa..... | 17 |
| 3.2. Testuinguru Curricularra..... | 18 |
| 3.3. Justifikazio Kurrikularra..... | 19 |
| 3.4. Metodologia eta Irakats Estiloa..... | 21 |
| 3.5. Esku Hartzearen Garapena..... | 23 |

| | |
|--|----|
| 3.5. Esku-Hartzea Inplementatzeko Behar Diren Baliabideak..... | 25 |
| 3.6. Esku Hartzeko Proposamenaren Ebaluazio Diseinua..... | 25 |
| 4. Emaizak eta Ondorioak..... | 27 |
| 4.1 Emaizak..... | 27 |
| 4.2. Ondorioak..... | 27 |
| 5. Mugak eta Prospektiba..... | 30 |
| 5.1. Mugak..... | 30 |
| 5.2. Prospektiba..... | 30 |
| 6. Erreferentzia Bibliografikoak..... | 32 |
| 7. Eranskinak..... | 38 |

Taulen aurkibidea

| | |
|--|----|
| 1. Taula: Eduki didaktikoak..... | 21 |
| 2. taula: Jardueren, helburuen, ebaluaketa irizpideen eta ebaluaketa-tresnen laburpen- taula..... | 23 |

1. Sarrera

Lan honek proiektuetan oinarritutako ikaskuntza (hemendik aurrera POI) eta Howard Gardnerrek (1995) garatutako adimen anitzen teoria ditu hizpide, haur-hezkuntzako ikasle-talde batengan motibazioa sustatzeko diseinatutako esku-hartze proposamen baten oinarri nagusi gisa.

POIri buruz ikertzeko motibazioetako bat, ikaskuntza aktiboa dela, ikasleen motibazioetatik abiatzen dela, eta haurrak protagonistak direla eta modu aktiboan lan egiten dutela izan da. Gainera, adimen anitzen teoriaren bidez lan egitea erabaki da, teoria honek hezkuntza pertsonalizatzea eta ikasleei laguntzea bilatzen baitu, beren indar puntuetatik abiatuta, ahulenak indartzeko.

2006. urtean LOEk, Europar Batasunaren gomendioak aintzat hartuta, oinarritzko zortzi gaitasun gehitu behar zaizkiola derrigorrezko hezkuntzako eskola-curriculumari ezartzen du. Neurri horiek hezkuntza araudi berrian mantentzen dira, batik bat, LOMCEn eta Heziberri 2020n (Ramirez, 2016). Funtsezko gaitasun horiek curriculumaren garapenean sartzeak garrantzi handiko eraldaketak eskatzen ditu ikasgelan egindako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan, eta horrek ahalegin handia eskatzen du eskoletan. Mendez et al.-ek (2015, Meroño et al.-ek aipatuta, 2018) egindako ikerketa baten arabera, irakasleek iritzi ez oso argia eta irmoa dute oinarritzko gaitasunak hezkuntza-curriculumean sartzeari buruz, eta oinarritzko gaitasunak beren irakaskuntza-programazioetan sartzeari errealitate bat dela adierazi arren, erdiek baino gutxiagok aldatu dute metodologia eta eguneroko zeregina. Gainera, irakasle gehienek uste dute ikasgelan gehien garatutako gaitasunak matematikoa eta hizkuntzakoa direla oraindik ere.

Pertsona bakoitzak adimen bakoitza modu desberdinean garatzen duela jakinda eta zortzi adimen ezberdin onartzen direla kontuan hartuta, hezkuntza-sistemak adimen guztiak sustatu beharko lituzke ikasle guztiei ikasteko aukerak emateko eta, horrela, guztiek beren gaitasunak ahalik eta gehien garatuko lituzkete, beren indarguneetatik abiatuta hobetu daitezkeen alderdiak indartzeko. Hori kontuan hartuta, ikasle bakoitzaren errendimendu handiena lortzeko modurik onenetako bat POI da; izan ere, ikaskuntza ikaslearengan zentratzen da, eta, batez ere, ikaslearen interesetik abiatzen da, eta horrek areagotu egin dezake ikasteko duen gogoia.

Lan hau bi zatiz osatuta dago: lehenengo zatian berrikuspen bibliografikoa egiten da, besteak beste, hurrengoak azaltzen dira: POIren jatorria, definizioa, ezaugarriak, parte hartzen duten eragileak, onurak eta POI haur hezkuntzan. Ondoren, adimen anitzen teoriaren (Gardner, 1995) alderdi garrantzitsuak azaltzen dira, teoria ulertu eta testuinguruan kokatu ahal izateko. Honako hauek adierazten dira: Gardnerrek proposatutako adimenak, horien ezaugarriak eta aplikazioa haur hezkuntzako gelan. Azkenik, motibazioa zer den, POIren eta motibazioaren

arteko harremana, adimen anitzen eta ikasleen motibazioaren arteko harremana, adimen anitzen teoriaren eta POIren arteko harremana eta hiru kontzeptuen arteko lotura aurkezten da. Bigarren zatian, Gasteizko ikastetxe publiko bateko haur hezkuntzako bigarren zikloko gela bateko ikasle guztien artean ikasteko motibazioa sustatzea helburu duen esku-hartze proposamen baten diseinua azaltzen da. Proposamen horren bidez, zortzi adimenen bidezko ikaskuntza sustatu nahi da, proiektu bat gauzatu. Horretarako, hainbat jarduera aurrera eramango dira testuinguru desberdinetan, adimen desberdinak erabiliz eta ikasle guztiei ikasteko aukerak emanez.

1.1. Gaiaren Justifikazioa

POI-k ikasleak ahalik eta potentzial handiena lortzera bideratzen dituen zenbait ezaugarri jasotzen ditu. Interesgune batetik abiatuta, galdera batek motibazio handiagoa ematen die ikasleei horri buruz ikertzeko eta, horrela, beren ikaskuntza propioa sortzeko. Horrela, haurra da protagonista eta irakasleak orientazioa ematen dio irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan. Halaber, proiektu hori ikuspegi globalizatzailean oinarritu nahi da; horrek esan nahi du ikaskuntza-edukiak errealitatetik bertatik txertatuta daudela, eta horrek aukera ematen duela edukiak diziplina bakar batek eskaintzen dituenak baino interpretazio- eta adierazgarritasun-eremu handiagoetan integratzeko. Gainera, lankidetzak sustatuko da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Horrek ezagutza ulertzen lagunduko du, haur bakoitzak bere gaitasunak eta ahalmenak baititu. Horren ondorioz, edukiak ikasleen errealitatea ulertzeko moduarekin bat egin behar dute, eta, beraz, ezinbestekoa da haietako bakoitzaren interesekin bat egitea (Vergara, 2017).

Bestalde, adimen anitzen teoriak (Gardner, 1995), pertsonen alderdi genetikoak kontuan hartuta, burmuina potentzial askotarikoa eta moldagarria dela dio; beraz, maila batean edo bestean, gizaki orok adimen bat baino gehiago garatzen ditu. Adimenaren kontzeptuaren bilakaerak atzean utzi du adimen bakarra zegoelako ustea, eta elkarrengandik independenteak diren gaitasunen multzo gisa ulertu da.

Horregatik, kontuan izan behar da ikasle guztiek ez dituztela gaitasun berak, eta, beraz, ez dutela berdinean ikasten. Hori dela eta, garrantzitsua da ikasle bakoitzaren ikaskuntza-eritmo, trebetasun eta gaitasun espezifikoak kontuan hartzea. Horrek agerian uzten du metodologia tradizional asko, ikasleak zentratzen ez direnak, zaharkituta geratu direla (Bona, 2018). Beraz, gaur egun, metodologia aktiboek indar handia hartu dute, ikasleak bere ikaskuntzaren protagonista izan daitezela. Metodologia aktiboek nabarmen hobetzen dute ikaslearen motibazio intrintsekoa, ikaskuntza sakonagoa da, errendimendua handitu egiten da eta gogobetetasun handiagoa sortzen du bai irakasleengan bai ikasleengan (Pinedo et al., 2016).

Adimen anitzen teoria (Gardner, 1995) oso tresna erabilgarria izan daiteke hezkuntzaren eremuan, hau da, kalitatezko hezkuntza-sistema inklusiboa sortzeko bidea izan daiteke. Izan ere, Gardnerren lanak (1995) irakatsi eta ikasteko prozesuan aldaketak egiteko baliabide teorikoak eta praktikoak eskaintzen ditu.

Lan honetan aurkezten den esku-hartze proposamenaren helburua ikasleen gaitasunak ahalik eta gehien garatzea da, modu praktikoan eta askotariko irakaskuntza- eta ikaskuntza-egoeren bidez, ikasleek bizitzan esperimendatzen dituzten eta esperimendatuko dituzten egoerak bezalaxe. Horretarako, proiektu bat diseinatu da, eta, bertan, adimenak hainbat testuingurutan eta hainbat gaitasun-tipologiatan lantzea proposatzen da. Helburua, ikasleek, motibatuta egonda, adimen desberdinak lantzea eta gaitasun guztiak garatzea da.

Laburbilduz, bai POIk bai adimen anitzen teoriak (Gardner, 1995) helburu hauek dituzte: ikasle bakoitzaren garapen osoa eta bakarra lortzea, ikasle bakoitzaren gaitasunak ahalik eta gehien garatuz, bere interesetatik abiatuta.

1.2. Arazoaren Planteamendua

Gardnerrek (2001) adierazi zuen hainbat test eta proba estandarizatutan ebaluatutako ezagutzak ez direla egungo gizartearen errealitatera hurbiltzen. Egia da adimena eskola-arrakasta aurreikusteko balio duela, baina ez da faktore bakarra. Genetika edo testuinguru soziala errendimendu akademikoaren barruan hartu behar dira kontuan.

Oro har, hezkuntza-sistemak ez du hezkuntza pertsonalizatzen, hots, ikasleak modu globalean kontuan hartzen ditu. Hala ere, gero eta eskola gehiagok aldarrikatzen dute ikaskuntza esanguratsua, metodologia alternatiboak erabiliz: Reggio Emilia (Cagliari, et al., 2017), Montessori (L'écuyer eta Murillo, 2020) eta Waldorf (Dahlin, 2017), Haur Hezkuntzaren esparruan gehien erabiltzen diren metodologiak dira (Ray, 2016).

Kontuan izan behar da ikasle bakoitzak bere ikaskuntza-prozesuak eta -erritmoak aurkezten dituela, baita gaitasun eta behar bereziak ere. Bai POIk bai adimen anitzen teoriak (Gardner, 1995) hezkuntza pertsonalizatzea dute helburu. Ikasle bakoitzaren profil indibidualak ezagutzea funtsezkoa da bakoitzaren indarguneak aprobeztatzeko eta ahulena indartzeko (Nadal, 2015). Era berean, garrantzitsua da edukiak hainbat modutan irakastea, ikasle guztiak horren alde egin dezaten eta ikas dezaten.

Hainbat azterlan egin dira errendimendu akademikoaren eta ikasleen motibazioaren hobekuntza ulertzeko, hala nola, proiektuak erabiliz eta adimen anitzen teoria (Gardner, 1995) erabiliz. Martinek eta Rodriguezek (2015) bi ikastetxe publikotako ikasleen helburu akademikoan

inguruko motibazio-ezaugarri nagusiak aztertu zituzten, batean metodologia tradizionala erabiliz eta bestean proiektuen arabera lan eginez. Bi ikastetxe publikotako lehen hezkuntzako 5. mailako 110 ikasleren laginarekin egin zen. Eskola batean azalpen-metodologia bat erabili zen, testu-liburu tradizionalan zentratua, eta beste zentroan, berriz, proiektuen arabera lan egin zen. Autore horien esanetan, POIren aplikazioak lotura estua du adimen anitzen teoriarekin (Gardner, 1995). Honek, ikasleen motibazioa areagotu egiten du, ikasleen interesetatik abiatzen delako eta ikasleek ikasteko zaletasuna hartzen baitute. Bestalde, azpimarratzen dute proiektukako ikaskuntzan parte hartutako ikasleek motibazio handiagoa izan dezaketela ikaskideek baino hobeto egiteko, nota altuagoak eskuratzeko edo beste ikaskideek ez dakizkiten gauzak egiteko. Eskuratutako gaitasunei dagokienez, azterlan honen egileek iradokitzen dute proiektuka lan egiten duten ikasleek metakontzientzia handiagoa garatzen dutela beren potentzialei eta mugei dagokienez.

Varelak (2005, Martí-nek aipatuta, 2017) proiektu bat diseinatu zuen adimen anitzen teoria erabiliz (Gardner, 1995). Emaitzek erakutsi zuten ikasleen motibazioa eta errendimendua nabarmen handitu zirela.

Lan honetan arreta jasotzen duen ikastetxeko 5 urteko ikasle guztiak motibatuta eta ikasteko gogoekin egotea lortzeko, adimen guztiak testuinguru desberdinetan eta hainbat gaitasunekin lotuta lantzen dituen proiektu bat diseinatzen da, ikasle guztiak beren indarguneetatik abiatuta eta beren beharretan oinarrituta ikasi ahal izan dezaten, euren motibazioa areagotuz.

1.3. Helburuak

Lan honen helburu orokorra POIren, adimen anitzen teoriaren eta motibazioaren berrikuspen bibliografiko batetik abiatuz, haur hezkuntzako gela batean proiektu bat diseinatzea, adimen anitzak kontuan hartuz, adimen bakoitza lantzeko eta ikasle bakoitzaren gaitasunak indartzeko, ikasteko motibazioa areagotuz da.

Helburu orokorra kontuan hartuta, bi helburu espezifiko sortu dira. Lehenengoa berrikuspen bibliografikoan jasotakoa islatzea, infografia baten bidez, horren garrantziaz jabeazteko izan da eta bigarrena teoria kontuan hartuta proiektu bat diseinatzea, jarduera desberdinak proposatuz izan da.

2. Marko teorikoa

2.1. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza

Jarrain, POIren hainbat definizio azaltzen dira. Lan-proiektuak, asmatzeko, imajinatzeko eta irakasteko eta ikasteko abentura gisa aurkezten dira. Ikaskuntza-prozesua ikerketan, berdintasunezko negoziazioaren printzipioetan, norbanakoaren erantzukizunean, koperazio-jarreran eta erabakiak adostuta hartzean oinarritzen da (Cascales eta Carrillo, 2018).

Kokotsaki et al.-ek (2016) POI, ikaslearen ikaskuntza aktiboan oinarritutako metodologia gisa definitzen dute, eta honako ezaugarri hauek ditu: ikaslearen autonomia, ikerketa eraikitzaileak, helburuen lorpena, lankidetzeta, komunikazioa eta hausnarketa, mundu errealekin lotutako praktiken bidez.

Definizio horiek kontuan hartuta, Vergarak (2017) azpimarratzen du ikasleen benetako prestakuntza-beharrekin konprometitutako irakaskuntza-eredua dela, curriculum bereen interesekin eta kezkekin konektatzeko gai dela, ikaskuntza kooperatiboa sustatzen duela, ikasleak berak proiektuaren protagonista sentitzen dela, eta bizi duten testuinguruarekin konpromisoa hartzeko gaitasuna ematen diela, erantzun nahi duten edozein galderari erantzuteko beharrezkoa den informazioa aztertu eta trukatzeko.

Azken finean, ikusi den bezala, ikaskuntza-eredu honek benetako ikaskuntza-testuingurua ematen die ikasleei, eta zuzenean inplikatzeko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Era berean, ikaslea arduratuko da konplexutasun-maila jakin bateko zeregin bat ebaztera bideratutako zenbait erabaki hartzeaz (Abella et al., 2020).

2.1.1. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren Jatorria

POI, García eta Pérez-en arabera (2018), XX. mendearen 70. hamarkadan hasi zen, Dinamarkan, eta horrek, eragin handia izan zuen pentsamenduan, kulturen eta politikan. Mugimendu hori haurren interesatik abiatuta, errendimendua handitzen saiatzen zen, eta, beraz, haurra ikaskuntza-esperientzien protagonista izan behar zuen. Horrela, apurka-apurka, metodo aktiboak sortzen hasi ziren, eskola berrian aurrerapen bat izan zirenak. Galeanaren arabera (2006) metodologia honek konstruktibismoan ditu sustraiak, psikologo eta hezitzaileen lanetatik abiatuta eboluzionatu zuena, Vygotsky, Bruner, Piaget eta Dewey kasu.

POIren jatorriaz hitz egitean, ezinbestekoa da John Dewey filosofo eta pedagogo estatubatuarren ideietan oinarritzea. Dewey (1859-1952) Ameriketako Estatu Batuetako pedagogia aurrerakoiaren figura adierazgarriena izan zen, haurrengan oinarritutako

irakaskuntzaren aldeko erreformatzaileen aitzindaritzat hartzen da. Autore honentzat, hezkuntza "esperientziaren berrantolaketa edo berreraikuntza etengabea da", eta, beraz, gizartea berreraikitzeke espazio gisa ulertu behar da, kontzepzio tradizionalenak gainditzin dituen, ez bakarrik teoriaren printzipioetan, baita hezkuntza-jardunean bertan ere (Luzón eta Gonzalez, 2019). Eskola esperimentalaren helburu nagusia "haurri mundu errealean bizitzen irakastea" da. Pedagogiari egiten dion ekarpen nagusia honako honetan oinarritzen da: ikasleek, ikasgelan beti sentitu behar baitute hezkuntza-ekintza prozesu iragazkorra dela, esperientziatik abiatuta ikasten dute: horrela, irakaslearen zeregina galdetzeko, ikertzeko eta zalantzan jartzeko joera naturala sustatzea da (Pallarès eta Muñoz, 2017).

Gaur egun, ikaskuntza-eredu horrek gero eta garrantzi handiagoa du, izan ere, ikasleak, benetako ikertzaile gisa, ezagutza sortzen duten eragile bihurtzen dira, eta gai dira alde aurretik definitutako estrategiekin plan bat jarraituz arrazoitzeko eta jarduteko, eta ikaskideekin lankidetzan aritzen dira azken produktua egiteko (Basilotta et al., 2016).

2.1.2 Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren Ezaugarriak

Planteamendu metodologiko honek ikaslea eta haren interesak ditu ardatz, eta bere ezagutza eraikitzeke aukera ematen die, komunikazioaren eta edukien eta esperientzien trukearen bidez, ezagutza berriak lehendik dituenekin lotuz (Sarceda et al., 2016). Ildo horretan, Vergarak (2017) defendatzen du POIk ikaslearen interesekin konektatzeko beharra abiapuntu duen hezkuntza-eraldaketarako esparrua eskaintzen duela.

Proiektuak ikaskuntza kooperatiboko tresnatzat hartzen dira, ikasleek errealtatea azter dezaten eta bertan esku har dezaten; helburua ez da edukien transmisio hutsa bilatzea, baizik eta esparru pertsonala eta proiektuak egiten parte hartzen duten ikasleen taldea emango duten hezkuntza-esperientziak sortzea (Vergara, 2017).

Metodologia berri honek dakartzan inplikazioak garrantzitsuak dira. Orain arte, hezkuntza-sistema tradizionalan, hezkuntza-agintariak alde aurretik ezarritako curriculum baten arabera dagozkion ezagutzak eskuratze hutsa lehenesten da. Hala ere, ikasgelan metodologia berritzaile hori ezartzeak aldaketa dakar, bai curriculumari dagokionez, bai inplikaturako eragileei dagokienez. Helburuek, ezagutzak ez ezik, ikasleen oinarritzko gaitasunen garapena ere hartzen dute kontuan, prestakuntzan eta ebaluazioan lekua baitute (López, 2016). Gainera, parte-hartzaileek (irakasleak, ikasleak eta familiak) beste lan- eta inplikazio-ikuspegi bat dute, eta horrek irakaskuntza-ikaskuntza prozesua aldatzea dakar (Alonso, 2018). Jarraian, hainbat eragileren aldaketa nabarmenenak zeintzuk diren zehaztuko dira.

Irakaslea. Irakasleek POI-ren barruan, ikasteko giroa sortu behar dute, espazioak aldatuz, informazioa eskuratuz, prozesua modelatuz eta gidatuz. Gainera, irakasleak barne-dinamikak bideratu behar ditu, eta beharrezkotzat jotzen duenean, esku hartu. Halaber, beharrezkoa da taldeari ideiak sortzen laguntzea, proiektuek norabide eta sostengu argia izan dezaten (Cobo eta Valdivia, 2017). Irakasle gidari-tutoreak ikaslea motibatu behar du gauza berriak ezagutzeko eta errealitatearekin lotutako proiektuak garatzeko interesa senti dezan. Ikasleak hasieratik interesa sentitzen badu ikasten duen horretan, gehiago sakonduko du ikasi nahi duen horretan. Lantzen duen proiektua funtsezkoa izango da inguruan duten munduan sortzeko eta berritzeko (Toledo eta Sánchez, 2018).

Ikaslea. Ikasleek ikerketa-prozesu sistematiko batean parte hartu behar dute, eta prozesu horrek berekin dakar ikaskuntza-helburuei buruzko erabakiak hartzea, gaia ikertzea eta ezagutza eraikitzea. POIn ikasleek arazoak konpontzea bilatzen dute, galderak sortzen dituzte, ideiak eztabaidatzen dituzte, planak diseinatzen dituzte, datuak biltzeko ikerketak egiten dituzte, ondorioak ateratzen dituzte, emaitzak beste batzuei azaltzen dizkiete, galderak birdefinitzen dituzte eta azken produktu bat sortzen dute (Medina eta Tapia, 2019). Aguilarrek eta Herradak (2018) nabarmentzen dute POIren ikuspegia gaitasunen garapenean oinarritzen dela, eta, beraz, ikasleak gai izan behar duela bere ezagutza eraikitzeko, errealitatearekiko interakzioaren bidez.

Familiak. Metodologia honek familiak alderdi akademikotik harago hurbiltzea proposatzen du, non haiek ezagutzak irakasten parte hartzen duten, ikasgelan eskuratutako guztia ikaslearen ingurune hurbilean eta maitatuenean txertatuz (López, 2016).

2.1.3 Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren Onurak

POIren helburua gizabanakoaren garapen integrala lortzea da, diziplina anitzeko lanaren bidez, non ikaslearen gaitasun kognitiboak eta gaitasun sozio-afektiboak elkarrekin lan egiten duten (López, 2016).

Cascales et al.-ek (2017) POIren inguruan egindako ekarpenak kontuan hartuta, POI ikasgelan aplikatzearen onurak honako hauek direla esan daiteke:

- Ikasleak lanpostuetarako prestatu. Ikasleek trebetasun eta gaitasun ugari eskuratzen dituzte, hala nola lankidetzak, proiektuen plangintza, erabakiak hartzea eta denboraren erabilera.

- Motibazioa eta konpromisoa areagotzen ditu. Ikasleen bizitzarako garrantzitsuak diren gaiak hautatzeko aukera ematen die. Horri esker, eskolara bertaratzea gora egiten du, ikasgelan gehiago parte hartzen dute eta zereginak egiteko prestasun handiagoa dute.

- Eskolako ikaskuntzaren eta errealitatearen arteko lotura egiten du. Ikasleek ezagutza eta trebetasun gehiago izaten dituzte proiektu estimulatzaileekin konprometituta daudenean. Proiektuen bidez, ikasleek maila handiagoko adimen-trebetasunak erabiltzen dituzte, testuinguru isolatuetan datuak memorizatu beharrean, mundu errealean noiz eta non erabil daitezkeen kontuan hartzen du.

- Ezagutza eraikitzeko lankidetzak aukerak eskaintzen ditu. Elkarlaneko ikaskuntzak aukera ematen die ikasleei beren artean ideiak partekatzeko edo besteen ideiei erresonantzia emateko, beren iritziak adierazteko eta etorkizuneko lanpostuetan beharrezkoak diren konponbideak eta trebetasun guztiak negoziatzeko.

- Ikaslearen eta irakaslearen arteko elkarrekintza aktiboa bultzatzen du.

- Diziplina aniztasuna sustatzen du.

- Ikaskuntza esanguratsua sustatzen du.

POI, hezkuntza-estrategia osagarria izan beharrean, integrala da, eta beraz, ikaskuntza-prozesuaren zati garrantzitsua da. POIk ikaskuntza eraikitzen du ikasleen indargune indibidualen gainean, eta aukera ematen die beren intereseko arloak esploratzeko, ezarritako curriculum baten esparruan (Sarcerda et al., 2016).

2.1.4 Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza Haur Hezkuntzako Etapan

Haur hezkuntza bizitza-, jolas-, komunikazio- eta ezagutza-zentro gisa ulertzen da, eta, azken batean, gozamenezko existentzia bat ahalbidetzeko diseinatutako eta antolatutako espazio bat da, harreman eta errealizazio pertsonaleko esperientzia ugari dituen. Ikuspegi horretatik, POIk paradigma pedagogikoa aldatzea dakar, irakaskuntza-ikaskuntza eredu tradizionalen aurrean (Gallardo et al., 2016). Paradigma berri honek ikastetxearen kontzeptu berri baten inguruan lan egin behar dela esan nahi du, haren dimentsio eta eragile guztiei dagokienez, ebaluazio-helburuak, -edukiak eta -irizpideak modu desberdinean diseinatu eta programatu behar diren heinean; horrez gain, POI sustatzen duten irakaskuntza-espazioak konfiguratu behar dira, bai eta hezkuntza-baliabide batzuk erabili ere, gaur egun oraindik berritzailezat jotzen den metodologia horrekin bat etorriz, eta hezkuntza-prozesuen aldaketa egokia ahalbidetu eskola tradizionaleri alternatiba bat eskainiz (Cascales eta Carrillo, 2018).

Helm-ek eta Katz-ek (2016) azpimarratzen dute ikuspegi metodologiko honek eduki berriak ikasteko jakin-mina sustatzen duela eta ikasleen ikaskuntza-eritmoetara egokitzen dela; izan ere, gai bat sakon ikertzeak programatutako hezkuntza-helburuak lortzen laguntzen du, eta, aldi berean, ikasleen aniztasunari eta inklusioari arreta ematen laguntzen du.

Balongok eta Meridak (2016) ikerketa bat egin zuten, eta, bertan, metodologia honetan ematen den berdinen arteko laguntza aztertu zuten, honako hauetan enfasia jarriz: motibazioa areagotzea, sortzen den inplikazio emozional handia, ezartzen den arreta pertsonalizatua eta ikasleen eta irakasleen arteko harremana. Ikerketatik ondorioztatu zuten, metodologia honek ikasleen hezkuntza-integrazioari laguntzen diola, eta hori eskola-giro positiboa eraikitzeko aurretiazko eta ezinbesteko urratsa dela.

Bestalde, haur hezkuntzan POIrekin lan egiteak hezkuntza-komunitateko eragile guztien artean ezartzen diren harremanak berregituratzea dakar (Cascales et al., 2017). Ildo horretan, Balongok eta Meridak (2016) adierazten dutenaren arabera, POI metodologiak familien ezagutzak eta esperientzia profesionala erabiltzen ditu irakasteko eta ikasteko prozesuaren funtsezko zati gisa, familiek tutoretza eta laguntza ematen baitiete beren seme-alabei eskolan ematen diren hezkuntza-prozesuetan, eta familien konpromiso handia lortzen da, familiek positiboki baloratzen baitute, beren ustez ikasleei "entzuten" dien metodologia bat da, arreta indibidualizatuari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, esan daiteke haur hezkuntzako ikasgelan proiektuen bidez lan egitea erronka bat dela irakasleentzat, aldaketa asko egin behar baitituzte ikasgeletan eta lan egiteko moduan, baina Pozuelosek (2007) dioten bezala, ilusioa pizteko eta ikerketa sustatzeko gai den esperientzia bat da, irakasleentzako prestakuntza-estrategia eta ikasleentzako ikaskuntza-estrategia gisa. Ikasleak beren intereseko gaietan aberasten dituen lan egiteko modu bat da. Gainera, pizgarri berri bat da irakasleentzat, ideia berriak eta beren zeregina garatzeko modu dinamikoago bat aurkitzen baitituzte. Eta, are gehiago, lantzen ari diren gaiari buruz ere ikasten dute, hezkuntza-maila baxuenetan oso arraroa dena.

2.2. Adimen anitzen teoria

Howard Gardner, psikologiaren alorreko zientzialaria, adimen anitzen teoriaren erreferente nagusia da. 1943an jaio zen Scrantonen, Pennsylvanian (AEB) eta soziologia, medikuntza, filosofia eta psikologia ikasi zituen Harvardeko Unibertsitatean. Gaur egun, Harvardeko Unibertsitateko irakaslea da, eta "Project Zero" izeneko hezkuntza-proiektu baten zuzendaria da. Proiektu horren helburua haurren eta helduen ikaskuntza-prozesuak aztertzea da (Gardner, 2016).

70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera Gardner "adimen mota asko" egoteko aukera aztertzen hasi zen. Hala ere, 1983an bere "Frames of minds" (adimenaren egiturak) liburuaren argitalpenak adimen anitzen teoriaren sorrera eraginkorra markatu zuen. Liburu honetan, adimena kultur esparru batean arazoak konpontzeko edo kultura baterako produktu baliagarriak

sortzeko aktibatu daitekeen informazioa prozesatzeko potentzial biopsikologiko gisa definitzen du (Gardner, 1983).

Gardnerrek (1983) kontzeptua pluralizatu zuen eta adimena gizakiek gara dezaketen gaitasun gisa azaldu zuen. Definizioa aztertzean, bi atal bereizten dira. Lehenengoa arazoak konpontzeko gaitasunari buruzkoa da. Horretarako, gai izateak helburu batera iristeko biderik egokiena aukeratzeko gai izatea eta helmugara eramango duten urratsak egokienak izatea esan nahi du. Bigarren atala ingurune kultural edo sozial baterako balio handiko produktuak ekoizteko gaitasunari buruzkoa da.

Bestalde, Gardnerrek (1993) adimen bakarraren teoria (g faktorearen teoria) eta proba edo test psikometrikoen kontzepzioa kritikatzeko ditu. Bere kontzepzio unitario, orokor eta egonkorra zalantzan jartzen du, gizakiok adimen mota desberdinak garatzen ditugula uste baitu. Gardnerren arabera (1993), adimena neurtzen duten test tradizionalak batez ere logikaren eta hizkuntzaren neurrian zentratzen dira, eta horren beste alderdi garrantzitsu batzuk alde batera uzten dituzte, alderdi sozialak eta emozionalak aztertu gabe. Adimen anitzei buruzko bere teoriarekin, Gardnerrek, giza potentzialaren irismena, koiziente intelektualaren zifraren mugetatik haratago zabaldu nahi zuen (Gardner, 1995).

Gardnerrek (1995) zortzi kategoriatan biltzen ditu gizabanakoaren gaitasunak, eta, egilearen arabera, kategoria horiek batera lan egiten dute, nahiz eta kategoria bat edo gehiago nabarmendu zereginaren eskaeren arabera. Gardnerrek (1995) defendatzen du pertsona gehienek adimen bakoitza gara dezaketela maila egoki batera iritsi arte. Alde horretatik, hornidura biologikoan ez ezik, jasotzen den estimulazioan, banakako garapen-mailan eta ahaleginean bertan ere eragina izango du (Escamilla, 2014).

Adimen desberdinak balioztatzeko, Gardnerrek (1995) neurologia, psikologia kognitiboa, garapenaren psikologia, psikologia esperimentalak eta psikometriatik egindako ikerketak hartu ditu kontuan, eta adimen bakoitzak bete beharreko irizpide hauek ezarri ditu (Armstrong, 2006):

- Garuneko kaltea gertatuz gero adimena isolatzeko aukera. Lesio batek adimen mota bat kaltetu dezakeela esan nahi du, baina gainerako gaitasunak mantentzen dira.
- "Jakintsu inozoak" egotea, adimen motaren baten profil diferentzialak eta espezifikoak adierazten dituzten aparteko banakoak.
- Garapen-historia bat, adimen mota bakoitzaren bereizgarria, eta amaierako egoera adierazten duten trebetasunen multzo definigarri bat.
- Esperimentuen psikologia-lanen laguntza izatea eta datu psikometrikoetan oinarritzea.

- Funtsezko funtzioa betetzen duen eragiketa zentral bat edo eragiketa identifikagarrien multzo bat egotea.

- Sistema sinboliko batean kodetzeko aukera.

Adimen anitzen teoriaren funtsezko puntuak (Gardner, 1995) honako hauek dira (Armstrong, 2006):

1) Pertsona guztiek dituzte zortzi adimenak. Pertsona bakoitzak adimen-profil desberdina du; beraz, bakoitza gehiago nabarmenduko da batzuetan besteetan baino.

2) Gizaki orok du zortzi adimenak errendimendu-maila egokiraino garatzeko gaitasuna, baldin eta laguntza, aberastasun eta prestakuntza egokia jasotzen badu.

3) Adimenik ez da berez existitzen bizitza errealean. Adimenek beti elkarri eragiten diote. Adibidez, pertsona batek futboleko jokatzen duenean, adimen zinetiko-fisikoa, espaziala, linguistikoa eta interpersonala erabiltzen ditu.

4) Adimen bakoitzean adimentsu izateko modu asko daude. Pertsona batek, adibidez, baliteke irakurtzen ez jakitea, baina hizkuntzaren aldetik oso trebea izatea, aparteko istorio bat kontatzeko gai delako edo ahozko hiztegi zabala duelako.

2.2.1 Adimen Anitzen Ezaugarriak

Zortzi dira Gardnerrek (1995) deskribatutako adimenak. Jarraian, adimen bakoitzaren definizioa azaltzen da.

Adimen Linguistikoa. Hitzak eraginkortasunez erabiltzeko gaitasuna da. Hitzaren erabilera ahozkoa zein idatzizkoa izan daiteke, baita keinuen edo gorputzaren bidezko adierazpena ere. Bestalde, hizkuntzaren egitura (sintaxia), soinuak (fonologia), hitzen esanahiak (semantika) eta hizkuntzaren erabilera praktikoa (pragmatika) maneiatzeko gaitasuna biltzen ditu (Escamilla, 2014).

Adimen Logiko-Matematikoa. Zenbakiak eraginkortasunez erabiltzeko eta ondo arazoitzeko gaitasuna da. Adimen horrek barne hartzen du eredu eta harreman logikoekiko, baieztapen eta proposamenekiko, funtzioekiko eta horiekin lotutako beste abstrakzio batzuekiko sentsibilitatea (Armstrong, 2006). Adimen horrek arazoiketa logikoa erabiltzeko, harremanak ulertzeko eta ezartzeko, arazoak planteatu eta konpontzeko eta eskemak garatzeko gaitasuna biltzen du (Escamilla, 2014).

Adimen Musikala. Forma musikalak hautemateko (musikazale gisa), bereizteko (kritikari musikalak), eraldatzeko (konpositoreak) eta adierazteko (interpreteak) gaitasun gisa ulertzen da.

Musika-pieza baten erritmoarekiko, tonuarekiko edo melodiarekiko eta tinbrearekiko edo kolorearekiko sentsibilitatea barne hartzen du (Armstrong, 2006). Adimen musikalak musika ezagutu, sortu eta ekoizteko aukera ematen du (Escamilla, 2014).

Adimen Biso-Espaziala. Informazio grafikoa eta bisuala ezagutu, deskodetu eta kodetzeko eta espazioa interpretatu, moldatu eta antolatzeko potentziala da, objektuak, distantziak, ibilbideak eta ibilbideak ulertuz, gogoratzuz, azalduz eta kokatuz (Escamilla, 2014).

Adimen Korporal-Zinestesikoa. Gorputz osoa eta/edo zati eta segmentu batzuk erabiltzeko potentziala da, ideiak eta sentimenduak pentsatzeko eta adierazteko, eta objektuak eta materialak manipulatzeko, eraldatzeko eta sortzeko (Escamilla, 2014).

Adimen Naturalista. Gizakiari eta naturari buruzko informazioa jaso, bereizi, interpretatu eta komunikatzeko potentziala da, bai eta naturako, produktuetako eta objektuetako elementuak eta materialak modu egokian hautatu, sailkatu eta erabiltzeko potentziala ere (Escamilla, 2014). Adimen honek natur zientziei lotutakoak baino askoz gehiago biltzen du.

Pertsonen Arteko Adimena. Besteen asmoak, motibazioak, emozioak eta nahiak hautemateko eta ulertzeko eta haiekin eraginkortasunez jarduteko ahalmena hartzen da kontuan (Escamilla, 2014). Pertsonen arteko adimen handiko hurrek besteen ulermen ona erakusten dute, erraztaileak dira, informazioa partekatzen dute, bitartekariak dira liskarretan, laguntzen dute, etab. (Armstrong, 2006).

Pertsona Barruko Adimena. Norberarekin, norberaren gaitasun eta zailtasunekin, ahalegin- eta iraunkortasun-jarreraren garapenarekin eta erabakiak hartzeko prestaketarekin zerikusia duen informazio oro jaso, hausnartu, ulertu eta komunikatzeko ahalmena da, bitartekoak identifikatu eta hautatuz eta horien ondorioak baloratuz (Escamilla, 2014).

2.2.2 Adimen Anitzak Haur Hezkuntzako Gelan

Adimenekin lotutako ikaskuntza-jarduerak planteatzeak ikaskuntza holistikoagoa sustatzen du, gaitasunak garatzen ditu eta ikasleak "eginez ikasteko" egoeran jartzen ditu, adimen linguistikoa eta logiko matematikoa baino askoz gehiago landuz (Alonso et al. 2018).

Horri dagokionez, Gardnerrek (2001) eta Lópezek (2016) diote ikasle guztiek ez dituztela interes eta gaitasun berdinak; horregatik, banakoen arteko desberdintasunei erantzun behar zaie, beren interes eta trebetasun partikularrak deskubritzeko aukera emanez.

Adimen anitzak ikasgelan modu eraginkorrean aplikatu ahal izateko, programazioan eta prestakuntzan denbora gehiago eman behar da; hala ere, eskolak atsegingarriak eta entretenigarriagoak bihurtzen dira, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat. Gainera, konpetentziak

eta adimenak lantzen dira, curriculum ofiziala kontuan hartuta. Adimen anitzak lantzeko modu on bat talde txikietan da, proiektu bidezko ikaskuntzaren bidez (Alonso et al., 2018).

2.2.2.1. Irakaslearen Rola Adimen Anitzen Teorian. Irakaslearen rola adimen anitzen teorian (Gardner, 1995), Brunerren aurkikuntzazko ikaskuntzaren ikuspegitik (1966) eta Vygotskyren ikaskuntza soziokonstruktibistaren kontzepziotik (1979) irakaslearen figura ulertzen den bezala lotu daiteke.

Aurkikuntza bidezko ikaskuntzan ikaskuntza ez da informazioa transmititu eta jasotze hutsaren emaitza. Aitzitik, irakaslearen eta ikasleen arteko elkarrekintza aktiboaren bidez gertatzen da (Suarez, 2019). Deskubrimendu bidezko ikaskuntzak lagundu egiten du ikaslea, bere kabuz, ikaskuntza eraikitzen, eta, horrela, ikaskuntza esanguratsua eta epe luzekoa garatzen du, baina betiere irakaslearen laguntzarekin, hark gidatzen baitu ikaslea gauzak ondo egiteko (Saquina, 2016). Eredu horretan, irakasleak ikaskuntza-esperientziak eskaini behar ditu, ikasleak bilatu, esploratu eta aztertze. Ildo berean, adimen anitzen teoriak (Gardner, 1995) ikasleak modu aktiboan ikasten duela defendatzen du, irakasleak ikaskuntza honetan gidatzen duen bitartean.

Irakasleak rol protagonista hartzea ahalbidetzen dio ikasleari, eta partaide aktibo, dinamiko eta konstantea bihurtzen du bere prestakuntzan. Ildo horretan, irakaslea prozesu horren gidaria, orientatzailea eta bideratzailea da (Ribosa, 2020).

2.2.2.1. Adimen Anitzen Ebaluaketa. Gardnerrek (1995) adimen anitzen teoriaren proposamenarekin perspektiba berri bat planteatzen du haurren trebetasunak eta potentziala baloratzeko. Teoria horrek iradokitzen du test estandarizatuen eta paperaren eta arkatzen proba objektiboen mendekotasun txikiagoa duen sistema bat, garrantzi handiagoa emanez irizpideei buruzko testuinguru-neurketei, hau da, ikaslearen ikaskuntza aurreko lorpenekin alderatuta ebaluatzeko aukera ematen duten erreferentzia-puntuei.

Gardnerrek (1995) ebaluazio-sistema eraginkor bat planteatzerakoan kontuan hartu beharreko zenbait ezaugarri ezartzen ditu:

- Ebaluazioan zentratzea, hau da, gizabanakoen trebetasunei eta potentzialei buruzko informazioa lortzea, eta ez soilik proba formaletan, hala nola, azterketetan.
- Ebaluazioa ikaskuntzako ingurune naturalean, hots, gainerako jarduerekin integratuta egon behar du.
